



# 'Sorterriaren kolorea', Ramón de Zubiaurreren begiradatik

Ramón de Zubiaurre artista garaitarraren artelanak biltzen dituen 'Sorterriaren kolorea' erakusketa ikusgai dago Durangoko Arte eta Historia Museoa, otsailaren 5era arte. Zubiaurretarrak familia esanguratsua izan ziren kultur arloan. Valentín anaia margolari ezaguna izan zen eta Pilar arreba ere kultur arloan nabarmendu zen. Miren Pilar Gutiérrez de Zubiaurre Pilarren bilobak eta Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak familia interesgarri honen inguruko gakoak azaldu dizkiote ANBOTOrri. • 2-3



## Durangoko pilotaleku berritua urtarrilaren 27an inauguratuko dute

**Durango** • Inaugurazio egunari begira, lehenengo mailako pilota partiduak antolatzen dabiltzala azaldu du Durangoko Udalak. • 21

## Nevadah-k 'Still goes on' aurkeztuko du, hilaren 28an, Plateruenean

Nevadah boskoteak 'Still goes on' lan berria aurkeztuko du urtarrilean. Hiru urte eta erdiko isiltasunaren ondoren dator zortzi abestiko lan hau; Ekhi Arrieta abeslariagaz kale-ratu duten lehenengo lana da hau eta urtarrilaren 28an aurkeztuko dute Durangoko Plateruena antzokian. Rock doinuak nabarmentzen dira lan honetan ere. • 18





**Garazi Arrizabalaga Cabrerizo**

Arte eta Historia  
Museoko zuzendaria

**BERRIZ | 1984**

## “Ramón de Zubiaurre hil ondoren, bere lan artistikoa modu indibidualizatuan lantzen duen lehenengo erakusketa da hau”

Garaiko margolariaren erakusketa Durangoko Museoan dago ikusgai, otsailaren 5era arte

**DURANGO-GARAI • JONE GUENETXEA**  
**Ramón de Zubiaurreri (1882-1969)** buruzko erakusketa zabalik dago Durangoko Arte eta Historia Museoan. **Ramón, Valentín eta Pilar** neba-arreba garaitarrak ikur garrantzitsuak izan ziren artearen munduan. **Garai**ko sarreran dagoen **Landabarrena** baserrian jaio zen Ramón. **Valentín** aita musikaria izan zen, **haren alaba, Pilar, intelektuala, eta Ramón eta Valentín** semeak margolariak. **Hiru neba-arreben ama ere oso pertsona kultura zen eta artearekiko interesa transmititu zien.**

### Zubiaurretarrak behar den beste ezagutzen ditugu Durangaldean?

Museoan lanean hasi nintzenez argi nuen Zubiaurretarren erakusketa bat egin behar genuela Durangon. Ramón eta Valentín pintore ezagunak izan dira nazioartean. Euskal kultura eta ohiturak munduan zehar erakutsi dituzten artistak dira. Katalogoa egiteko, baimenak eskatu behar izan ditugu beste museo batzuetan, Oslon, Texasen, New Yoken,

Roman, Parisen... Oso figura interesgarriak dira.

### Nor zen Ramón de Zubiaurre?

Hiru neba-arreben artean erdikoak da Ramón, anaia Valentín baino gazteagoa eta arreba Pilar baino zaharragoa. Euren aita musikaria zen eta erregearen kortean lan egiten zuen. Horregaitik, Garaitik Madrilera joan zen bizitzera. Valentín Madrilen jaio zen, eta Ramón, oster, Garain. Biak gor-mutuak ziren. Ramonek Garain pasatu zuen haurtzarora. Pintore garrantzitsua izan zen. Anaiagaz antzekotasunak zituen, Zubiaurre anaiak lez ezagutu izan ditugu eta askotan ikusi ditugu elkarrengatik. Erakusketa hau prestatzen hasi aurretik, nik neuk ere ez nituen ondo bereizten anaia bien lanak. Bazen garaia anaia bakoitzari bere garrantzia emateko. Horregaitik, Ramonen lana bere aldetik landu dugu. Erakusketa honek badu berezitasun bat: margolaria hil ondoren, bere lan artistikoa modu indibidualizatuan lantzen duen lehenengoa da.

### Zelan antolatu duzue erakusketa?

Rebecca Guerra izan da erakusketaren komisarioa. Guerrak Valentinen lana aztertu zuen bere tesian; beraz, asko daki Zubiaurretarren. Museoak Ramonen koadro bat bazeukanez, bere erakusketa antolatzea erabaki genuen. Obra bat gurea da eta beste 29 obra kanpotik ekarri ditugu. Batzuk bilduma partikularretakoak dira eta beste batzuk museoetakoak: Gasteizko Arte Ederren Museoak, Bilboko Arte Ederren Museoak, Oviedoko Arte Ederren Museoak, BBK kolekziokoak, Gipuzkoako Foru Aldundikoak...

### Zein ezaugarri dituzte Ramón de Zubiaurreren lanek?

Bere anaia Valentín baino ironikoagoa zen. Koadroak txistek kontatzeko baliatzen zituen askotan. Beste kontu bitxi bat ere badago. Koadroak berrerabili egiten zituen. Batzuk moztuta daude eta beste batzuk gainetik margotuta. Hori erakusketan ikusi daiteke; koadro originalak

erakusketakoen ondoan daude ipinita, desberdintasunak nabaritzeko.

### Norbanakoak modelo lanetan ipintzen zituela ikusten da bere koadroetan.

Herritarrak modelo legez hartzen zituen. Ameriketara erbesteratuta joan zenean buruz margotzen zituen, baina beti hain estilo berezi horregaz. Euskal prototipoa izan daiteke.

### Pilar de Zubiaurre arreba ere modelo lanetan ipintzen zuen. Koadro horietariko bat museoko bilduman duzue.

Pilar de Zubiaurre arreba txikia zen. Nabarmendu gura nuke Va-

lentin eta Ramón gaur egun ez liratekeela diren besteko ezagunak Pilarren laguntzagaitik izan ez balitz. Pilarrek artista bien erakusketak komisariatzen zituen, ezagutzera ematen zituen. Pilarren figura oso garrantzitsua izan zen bere neben bizitzetan. Horrez gainera, modelo lanak egiten zituen Ramonentzat. Koadro horietariko bat erakusketan daukagu: 'Pilarren erretratu hirukoitza'. Bilboko Arte Ederren Museoan koadro bat da. Bertan Pilar agertzen da. Oviedoko koadroan ere Pilar agertzen da.

**Koadroak berrerabili egiten zituen. Batzuk moztuta daude eta beste batzuk gainetik margotuta**

### Holandako jantzi tradizionalekin jantzita agertzen da.

Pilarren, Valentinen eta Ramonen ama oso gazterik ezkondu zen euren aitagaz. Amak ere garrantzi handia izan zuen hiruren hezkuntzan. Oso emakume kultura zen eta hiru seme-alabak Europan zehar eraman zituen hainbat arte eskola ezagutzera. Bidaia horiek ere eragina izan zuten. Ramón Holandan egon zen sasoi batean, eta koadro horrek hango paisaia irudikatzen du, hango pinturako koloreak erabiltzen ditu.

### Koadroez gainera hainbat dokumentu dago erakusketan.

Ramón Isolina Gallego deitzen zen emakume batez ezkondu zen eta hartu-eman izan zuen Ortega y Gassetegaz. Horrela, Ortega y Gassetek berari idatzitako gutun bat dugu erakusketan. Ameriketara joan ziren barkuko dokumentazioa ere badugu.



Ramón de Zubiaurrek Holandan margotutako koadroa.

# "Erakusketa txikia da, baina mimo handiz egindakoa. Ramonek urteetan egindako lana islatzen du"

Pilar Gutiérrez de Zubiaurre Mexikotik Garaira bizitzera etorri zen orain urte bi. Familiaren loturari buruz berba egin du



Miren Pilar Gutiérrez de Zubiaurre García Urriaga

Pilar de Zubiaurreren biloba

MEXIKO | 1962

egindakoa. Urteetan Ramonek egindako lana islatzen du.

## Zein lotura duzue familian?

Pilar, Ramón eta Valentín neba-arrebek komunikazio handia zuten gutun bidez. Bazuten elkarren berri. Gutun asko idazten zituzten, Ramonek urte asko eman zuelako estatutik kanpora. Bestalde, Pilar 1950ean bueltatu zen Espainiara. Gure aitak bere osaba biek ere lotura estua mantendu zuen beti.

## Pilar de Zubiaurre oso emakume kultua zen. Zelan gogoratzen duzu amama?

Oso oroitzapen onak ditut. 9-10 urte nituela hil zen. Beragaz hartu-eman handia genuen, batez ere Garaira etortzen ginenean. Txikitan lagunak egin genituen Garain, oraindino ere manten-

tzen ditugunak. Euria egiten zuenean, amamak laguntxoak etxera gonbidatzen zituen eta osaben estudioan jolasten uzten zigen. Beste batzuetan egongelan beheko suaren ondoan jesartzen gintuen eta Grimmek ipuinak irakurtzen zizkigun. Beste batzuetan txokolatadak egiten zituen mendian.

**Euria egiten zuenean, amamak laguntxoak etxera gonbidatzen zituen eta osaben estudioan jolasten uzten zigen**

Astoa eta gurdia uzten zizkieten eta txokolatea egiten zigen. Ume bakoitzak bere ogitartekoa eramaten zuen. Bera abesten joaten zen bidean. Oso pertsona aktiboa zen. Gure aitaren esanetan, oso burugorria zen. Maite zituenekin kontaktua mantentzea gustatzen zitzaion. Eta Garaigaz zuen kontaktua ere bai.

## DURANGO • JOSEBA DERTEANO

**Miren Pilar Gutiérrez de Zubiaurre Pilar de Zubiaurreren biloba da. Mexikon jaio zen arren, txikitatik lotura mantendu du Garaigaz. Orain urte bi, Mexiko utzi eta Garaiko familiaren etxera etorri zen bizitzera. Arte eta Historia Museoa Ramón de Zubiaurrek bere arrebari egindako erretratu dago. Artelan horren parean ipinita, bilobaren eta amamaren arteko antzekotasun fisikoa ukazina da.**

## Non jaio zinen?

Mexiko hirian jaio nintzen. Nire gurasoek han elkar ezagutu zuten. Errefuxiatuak ziren biak. Hantxe jaio nintzen eta bost urte nituean etorri nintzen lehenengoz Garaira. Nire aita Pilar de Zubiaurreren semea zen eta 1938an Mexikora joan zen. Ama Santurtzikoa zen eta 1939an joan zen Mexikora. **Pilar de Zubiaurre zure amama ezagutu zenuen?**

Bost urte gaz etorri nintzen Garaira lehenengoz, eta harrezkero urtero etortzen ginen. Amama Pilar bisitatzen genuen. Garaigaz oso lotura estua dugu hiru neba-arrebok.

## Orain dela urte bi zelan erabaki zenuen Garaira bizitzera etortzea?

Senarrak eta biok Europara etortzeko gogoia genuen. Garaiko etxea ondo zainduta genuen arren, zahar kituta zegoen eta hona etorri eta etxeaz arduratzea erabaki genuen. Oso pozik gaude harturiko erabakiagaz.

## Ramón de Zubiaurreren erakusketa antolatu dute Durangon. Familiak zelan hartu du?

Oso pozik gaude. Nire nebek ere esan zidaten oso polita zela Ramonen erakusketa bat egitea. Ramón gutxien ezagutzen dugun osaba zaharra da. Bestalde, Valentinen eta Ramonen lanak bereiztea ere ideia ona zela iruditu zitzaigun. Erakusketa txikia da, baina mimo handiz



## "Ziurtagiriak bide onean gaudela erakutsi eta lanean jarraitzeko bultzada ematen digu"

San Antonio ikastetxeak goi-mailako Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria lortu du euskararen presentzia eta erabilera sustatzen egiten ari den lanagatik. Oier Urigoitia Ertzilurruti ikastetxeko zuzendariak jasotako errekonozimenduaren balioa nabarmendu du.

## Zer suposatzen du ikastetxearentzat goi-mailako ziurtagiria izateak?

Gure eskola nondik datorren ikusita, ikastetxean euskarari ematen zaion trataerari garrantzia ematea eta errekonozimendu bat jasotzea oso pozgarria da. Bide onean gaudela erakutsi eta lanean jarraitzeko bultzada ematen digu. Guk badakigu arlo honetan lan handia egiten ari garena, baina iruditzen zaigu ez dela gizartera heltzen. Beharbada kanpora begira irudi bat dugu eta horrelako errekonozimenduek irudi hori apurtzen laguntzen dute.

## Euskararen arloan bilakaera handia izan duzue azken hamarkadan?

Azken hamarkada bietan, esango neuke. Historikoki mojen eskola izan da. Hasieran A ereduak bakarrik eskaintzen zen, dena gaztelaniaz. 1999an mojak erretiratu egin ziren eta ikastetxeko batzuko kooperatiba bat sortu genuen. Harrezkero

bilakera bat izan da gaur egunera heldu arte. Gaur egun, D ereduak bakarrik eskaintzen dugu, dena euskaraz, eta gure arteko hartuemanak ere euskaraz dira. Aldaketa handia gertatu da.

## Ziurtagiria lortuta, bidearen amaierara heldu zarete?

Ez, lanean jarraituko dugu, hobetzen, eta hainbat egitasmo ditugu martxan. Ikasleak zenbat eta nagusiagoak izan, euskararen erabilera gutxitu egin dela ikusten dugu eta hainbat proiektu ditugu erabilera sustatzeko. Esaterako, seigarren mailakoekin bertsoari buruz inguruko proiektu bat dugu, sormena eta abar lantzeko. Horrez gainera, Loraldia kultur ekimenak euskararen inguruko hainbat proiektu ditu, eta aurten Lehen Hezkuntzako bosgarren mailakoekin eta DBHko laugarren mailakoekin landuko ditugu.



A/ Ramón de Zubiaurre (1882-1969) eta Valentín de Zubiaurre (1879-1963). Zubiaurre Aguirrezabal familia. "Vistas de Vizcaya y Guipúzcoa", album fotografikoa, 1901. Euskal Museoa Bilduma.

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Iaz harrera ona izan zuela ikusita —18.000 erabiltzaile inguru— Durangoko Udalak aurtien ere Jolas Librerako Gunea zabalduko du Landako Guneko modulu batean. Zerbitzua urtarrilaren 16tik, datorren astelehenera, apirila amaitu arte egongo da martxan. Jolasgunea astelehenera domekara egongo da zabalik, 16:30etik 20:00etara. Oтик 6 urtera bitarteko umeentzako jolasak ipiniko dituzte bertan, baina adin horretatik kanpoko herritarrek ere izango dute Landako Gunera sartzeko aukera, udalak ohar bidez esan duenez. Jolasguneak iraun bitartean Landako Gunean ekitaldiren bat antolatuko balitz, jolasgunea egun batzuez desmuntatuko litzatekeela aurreratu du udalak. Edozelan ere, erabiltzaileei alde aurretik emango diete abisua. Juanan Bueno eta Patxi Lakuntza zinegotziek adierazi dutenez, zerbitzu honek "jolaserako elementu gehiago" eskaintzea ahalbidetuko du "Durangoko haurrek aisialdiaz goza dezaten".

## Landako Guneko jolas eremua urtarrilaren 16tik aurrera egongo da erabilgarri

Durangoko Udalak Jolas Librerako Gunea atonduko du modulueteriko batean. Apirilera arte egongo da martxan



Jolasgunea Landako Guneko modulueteriko batean ipiniko dute.

**Umeentzako parkeak**

Udalaren berbetan, Jolas Librerako Guneak bat egiten du udal gobernua haurren aisialdirako eskaintza handitzeko egiten da-

bilen lanagaz. Horren adibide dira legegintzaldi honetan birmoldatu diren bost haur parkeak edo San Inazio parkea estaltzeko proiektua. Gainera, 2023ko au-

rrekontuetan Tabiran, San Fauston edo Ibaizabalen txintxaun parke berriak sortzeko partidak jaso direla gogoratu dute udal arduradunek.



## Marga Oregi dendariak erretiroa hartu du

39 urteren ondoren, denda zarratu du. Margaren Denda Durangoko erreferentziatzeko lekua izan da oihalak erosteko

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Marga Oregi Urizarrek 1983ko abenduaren 3an oihala denda bat zabaldu zuen Durangon. Barrenkaleko lokal batean hasi zen lanean, Santa Ana plazako dendara lekualdatu zen gero, eta Montevideoko lokal batean egin ditu azken urteak. 39 urtean Durangoko komertzioan

erreferente bat izan da berea. Gutxi izango dira oihala, jantzi edo mozorro eske bertara inoiz joan ez diren herritarrak. Urte amaieran jaitsi zuen pertsona, abenduaren 31n. "Baten bat denda hartzera animatzen bada, laguntzeko prest nago", adierazi zuen denda zarratu arteko azken orduetan.

## Berberok Hirukoa galaren laugarren edizioa egingo du urtarrilaren 20an

Galdera-erantzunen lehiaketa Plateruena Kafe Antzokian izango da, 19:30ean hasita

**DURANGO • ARITZ MALDONADO**

Berbaro elkarteak Hirukoa galaren edizio berri bat antolatu du. Telebistako lehiaketa baten antzera, hiru laguneko taldeetan antolatuko dira. Talde irabazleak Errigoraren otzara bat irabaziko du. Lehiaketan izena emateko, Berbaroren web atarira jo eta bertan inprimaki bat bete behar da. Lehiaketa Plateruena Antzokian izango da, urtarrilaren 20an, 19:30ean.



Iazko edizioaren une bat.

## Durangoko Udalak eraso zibernetiko bat jaso du

Erasoaren egilea ezezaguna da eta kalteak Herritarren Arretarako Zerbitzuari eragin dio, besteak beste

**DURANGO • J.D.**

Durangoko Udalak "jatorri ezezaguneko" eraso zibernetiko bat jaso du aste honen hasieran. Halantzik jakinarazi dute udal arduradunek ohar batean. Udaleko Informatika arlokoak eta zibersegurtasuneko zenbait aditu sistemen segurtasuna aztertzen ibili dira. Udalaren menpekoak diren zerbitzuetariko batzuk, Herritarrentzako Arreta Zerbi-

tzua adibidez, mugatuta egon dira. Beraz, udalaren jardunean eragina izan du.

Astean zehar udala lanean aritu da egoera normaltasunera bueltatzeko. Edizio hau ixterako, egoera oraindik guztiz konpondu barik zegoen. Azkenik, eraso hori autoritateei nahiz Zentro Kriptologiko Nazionalari (CCN) ezagutarazi dietela adierazi dute.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2022ko abenduaren 23a  
21. urtea - 919. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## GKS-k ekitaldiak egingo ditu herrika urtarrilaren 28ko manifestazioa aurkezteko

**DURANGALDEA • A.M.**

Gazte Koordinadora Sozialistak manifestazioak egingo ditu urtarrilaren 28an, Bilbon eta Iruñean, "enpresarien eta agintarien erasoaldiak" salatu eta "gazte langileak borrokara" deitzeko. Hori dela eta, Durangaldeko kideek mobilizazioak aurkezteko ekitaldiak antolatu dituzte. Durangaldeko hainbat herritan egingo dituzte manifestazioen atariko ekitaldiak. Durangon, Abadiñon eta Otxandion, adibidez. Durangokoa gaur bertan egingo dute, O'Connors tabernan, 19:30etan. 'Zergatik mobilizatu U28an?' berbaldia emango dute bertan. Horren ondoren, Katu eta Ainke taldeek kontzertua emango dute. Datorren barikuan, urtarrilaren 20an, Abadiñon eta Otxandion egingo dituzte aurkezpenak. Bilboko manifestazioak 18:00etan irtengo du, Jesusen Bihotza plazatik. Iruñekoak ere ordu berean irtengo du, Sarasate pasealekutik.



EH Bilduk aurkezturiko proposamenaren infografía.

## "Kiroldegi multifuntzionala" egitea poposatu du EH Bilduk

Koalizioaren iritziz, Urgozo kiroldegia "saskibaloira bakarrik" mugatuko da. Horren ordez, Berezikoetxen beste azpiegitura bat egitea proposatu dute

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Zornotzako EH Bilduk dioenez, Urgozo kiroldegi berriak "ez du herrian kirol instalazioekin dagoen arazoa konponduko, espazioak ez duelako saskibaloia ez den beste kirol egin ahal izateko tokia eskainiko". Hori dela eta, azpiegitura horri begirako alternatiba aurkeztu dute. Berezikoetxen

"kiroldegi multifuntzional bat" egitea. EH Bilduren berbetan, kirolgune berria "kirol elkarten eta herritarren iritzia, ekarpenak eta beharizanak kontuan hartuta" eraiki behar da, eta Berezikoetxeko proposamenak baldintza horiek beteko lituzke. Koalizioaren web orrian azpiegituraren aurkezpen bideoa ikusi daiteke.

## Nafarroa Zentroak jardunbide egokiaren saria jaso du

Aldundiaren 'Orain ni' saria eskuratu du. Gorabide eta Argia Fundazioa izan dira saritutako beste erakundeak

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Nafarroa Zentroak jardunbide egokiaren aitortza jaso du Bizkaiko Foru Aldundiaren partetik. Aldundiak horrelako aitortzen egiten dituen lehengo aldia da. Zornotzako zentroa 47 hautagairen artean nabarmendu da, Gorabidegaz

eta Argia Fundazioagaz batera. Epaimahaia adinekoen, familien, profesionalen, adituen eta zerbitzu-hornitzaileen ordezkariak osatu dute. Nafarroa Zentroa arreta ereduagaitik, pertsonak ardatz dituen eredu izateagaitik eta zaintza planagaitik saritu dute.



Nafarroa zentroko ordezkariak saria jasotzen.

**BETI GERTU!**

**ELORRIORA**

**HEMENDIK**

Begiratu aukerak gure webgunean:  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)  
Tel.: 946 816 673  
Bixente Kapanaga 19, beh.  
48215, Iurreta

# Uda baino lehenago zuntz optikoa egongo da Elorrioko Alde Zaharrean

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Elorriko Udalak, Afronta Taldeagaz batera, Alde Zaharreko Plan Bereziagaz bateragarria den proposamen bat landu du, eta, horrela, inguru horretan bizi direnei zuntz optikoa izateko aukera emango diete. Zerbitzurako beharrezkoak diren lanak martxoan hasita aurreratu dira eta, aurreikuspenak betetzen badira, lanak hasi eta hile bira amaituko da prozesua. Hau da, ekainerako instalatuta egongo da zuntz optikoa Alde Zaharrean. Alde Zaharraz gainera, zuntz opti-

koaren instalazioa herri guztira zabalduko dute. Hirigune historikoa babesteko, argiteria publikoko azpiegituraren erabilera oinarrituriko sistema bat diseinatu dute udaleko Hirigintza Sailaren eta Eguzki Telekom talde teknikoaren artean. Halaber, Eguzki Telekom enpresaren merkaturatzailea Elorriko enpresa bat izango da. Guztiaren berri urte hasieran emandako prentsaurrekoan eman zuten Idoia Buruaga alkateak eta Joseba Andoni García Losadak, Afronta Taldeko komunikazio arduradunak.

Elorriko Udalak gogoratu duenez, urteak daramatzate lanean elorriar guztiek zuntz optikoa izan dezaten, baina orain artean telekomunikazio konpainia handiek uko egin diote instalazioa egiteari.

Bestalde, Elorriko EAJk Alde Zaharreko auzokideekin batzar informatibo bat egitea eskatu dio udalari. "Euren etxeetan zuntz optikoa noiz eta zein preziotan izango duten azaldu diezaietela auzokideei", diote jeltzaleek. Era berean, udalean batzorde informatibo bat egiteko eskatu dute.



Joseba Andoni García Losada eta Idoia Buruaga.

## Elorriko hainbat puntutan gehiegizko zaratak identifikatu dituzte

Tecnaliak egin du zarata-mapa. Elorrio EAeko lehenengo herria da trantsizio eremuetako zarata-mapa egiten

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriko Udalak horrela eskatuta, Tecnalia enpresak zarata-mapa egin du Elorriko egoera akustikoa ebaluatzeko. Udalak ohar baten bitartez azaldu duenez, herriko hainbat eremutan gehiegizko zaratak identifikatu dituzte eta, emaitza horiek kontuan hartuta, kutsadura akustiko horri aurre egiteko neurriak eta ekimenak proposatu dituzte.

Goizetan bost puntutan identifikatu dituzte gehiegizko zara-

ta-iturriak, arratsaldeetan puntu bakarrean eta gauetan zortzi puntutan. Gune horiek guztiak Betsaide, Urkizuaran eta Morgaondo kaleetan edo inguruetan biltzen dira.

"Planak hainbat neurri eta ekimen biltzen du, gehiegizko zarata hauteman den eremuetan kalitate akustikoko helburuak lortzeko. Horien artean, aipatzekoa da lantalde bat sortu dela Elorriko industria jardura kudeatzeko", azaldu du Idoia Buruagak.

## Merina Gris, Lukiek, Zetak eta Sua apirilean Elorrion, Gazte Topagunean

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Bere 10. urteurrenean, Ernaik Elorrio aukeratu du Gazte Topagunea antolatzeko. Abendu amaieran Elorrion emandako prentsaurrekoan, egitarauaren berri eman zuten. Merina Gris, Lukiek, Zetak, Sua eta beste hainbat taldek kontzertuak emango dituzte apirilaren 6tik 9ra bitartean. Egitarau osoa aurrerago aurkeztuko duten arren, egongo diren hizlari batzuk ere nabarmendu zituzten: Jordi Borrás eta Kattalin Miner, Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia, Erantz Saez de Egilaz eta Lur Albizu, Jule Goikoe-txea, Garbiñe Aranburu...



Elorrion abenduaren 29an emandako prentsaurreko argazkia.

## Gorabideko langileek grebara deitu dute otsailaren 8rako

Gorabideko Durangaldean zentro bi ditu. Bat Abadiñon (Atxarte) eta bestea Durangon (Errota Eguneko Zentroa)

ABADIÑO • M.Z.

Gorabideko zuzendaritzaren "inposaketa" eta negoziatzeko "borondate ezaren" aurrean, Gorabideko enpresa batzordeak grebara deitu du otsailaren 8rako. Enpresa batzordearen esanetan, zuzendaritzak hitzarmenaren negoziazioa blokeatu du eta, gainera, zuzendaritzak

"inposaturiko" lan egutegiak barne hitzarmenean jasotako kontziliario neurriak mugatzen ditu. Hori horrela, mobilizazioak deitu dituzte datozen egunetarako, eta greba otsailaren 8rako. "Enpresak bere horretan jarraituz gero, behar diren greba egunetara deituko dugu", azaldu dute.



Gorabideko enpresa batzordeak emandako prentsaurreko argazkia.

## Jauregi berrurbanizatzea eta eskolako eraikina birgaitzea 2023ko proiektu nagusiak

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abendu amaieran egindako osoko bilkuran 2023ko aurrekontuak onartu zituzten Atxondon. Aurten aurrekontua 2.084.315 eurokoa izango da, 2022koa baino %4 handiagoa. Udaletik jakinarazi dute, Jauregi auzoa berrurbanizatzea eta eskolako eraikina birgaitzea dira 2023ko proiektu nagusiak. Apatamonasterioko pilotalekuko aldagelak eta Arrazolako haur instalazioak ere hobetuko dituzte.

"Herritarren ongizatea hobetzeko eta herriko hainbat puntu hobetzen jarraitzeko balioko digu aurrekontuak. Gainera, urtarrilean berriro aterako dugun deskontu bonuen kanpainari eusten diogu. Horrek gure bizilagunei inflazioaren hanzkudearen kostuak

minimizatzen laguntzea espero dugu, eta baita tokiko merkataritzari ere", azaldu zuen Xabier Azkarate alkateak. EH Bilduk kontra bozkatu zuen. Horrez gainera, Axpeko aterpetxea birgaitzeko

72.000 euroko partida bat sartu dutela jakinarazi zuten. "Baldin eta eraikinaren irisgarritasun beharrak alde batera uzteko udal eskaera onartzen bada", gaineratu zuten.



Apatamonasterioko argazkia.




# DURANGALDEKO

# IKERLARI

# GAZTEEN

# SARIKETA



Artikuluak · Bideoak  
Podcastak · Posterrak

Bi kategoria:  
18 urtera arte eta  
19-35 urte artekoak  
Sariak: 1000€ eta 500€

Informazio gehiago:



[www.gerediaga.eu](http://www.gerediaga.eu)

Antolatzailea:



Babeslea:



Durangaldeko  
Mankomunitatea  
Mancomunidad  
de Durangaldea

## Gabon sasoiko hainbat egunetan medikurik barik egon direla salatu dute Mañariko eta Izurtzako alkateek

"Premiazko zerbitzu bat da, ez da kapritxo bat. Jendea behar duelako joaten da medikuarengana", salatu dute alkate biek



Mañariko osasun zentroa.

**MAÑARIA/IZURTZA • JOSEBA DERTEANO**  
Abenduko zubian gertatu zen moduan, Gabonetako hainbat egunetan ere medikurik barik egon dira Mañarian eta Izurtzan. Medikua oporrak ez zituzten ordezkatu eta herri bietako kontsultategiak itxita egon dira.

Erizaina ere ez zuten ordezkatu. Halaxe salatu dute herri bietako alkateek. "Urteko azken aste guztian ez zen medikurik egon. Premiazko zerbitzu bat da, ez da kapritxo bat. Jendea behar duelako joaten da medikuarengana. Herritarrak osasun arreta hartzera herritik

mugitu behar badira arazo bat da, gehienbat jende nagusiari begira", salatu zuen Ainara Otxotorena Mañariko alkateak, eta kritika honegaz bat egin zuen Lorea Muñoz Izurtzako alkateak. Udalek eta herritarrek arlo honetako kexak sartu zituzten anbulatorioan, eta

ESItik (Erakunde Sanitario Integratua) erantzuna jaso dute. Erantzunean orain arteko azalpenak errepikatu dizkiete, Otxotorenen esanetan: "Barkamena" eskatu dute eragozpenengaitik, eta ordezkorik ez dagoenez, ordutegiak "dohitu" eta zerbitzua "zentralizatu" behar izan dituztela azaldu dute.

**Ordezkorik ez dagoela eta zerbitzua "zentralizatu" behar izan dutela erantzun diete ESItik**

**Osasun Saitetik erantzunik ez**  
Oraindik ere erantzunik jaso ez duena EH Bilduko Durangaldeko hainbat alkatek Osasun Sailari zuzenduriko eskaera da. Iazko abenduaren erdian bilera bat eskatu zioten osasun sailburuari eskualdeko lehen arreta zerbitzuan dauden gabezien gainean berba egiteko.

## Mañariko lursail batean bertako zuhaitzak landatuko dituzte boluntarioekin

**MAÑARIA • J.D.**

Mañariko Udalak Urkiolara bidean dagoen baso zati bat erosi zuen 2021ean, bertan baso autoktono bat sortzeko helburuagaz. Lursailak 4,1 hektarea —41.314 metro karratu— ditu. Ondoren hitzarmen bat sinatu zuen, arlo horretan aditua den Lurgaia Fundazioagaz proiektua aurrera eramateko.

Egitasmo horren barruan, bertoko zuhaitzak landatuko dituzte domeka honetan, boluntarioen laguntzagaz. Eguraldiaren arabera, zuhaitz gehiago edo gutxiago landatuko dituzte: 400etik 600era artean. 10-15 bat zuhaitz espezie landatuko dituzte: hainbat aritz mota, elorri zuria, elorri beltza, gorostia eta urkia, besteak beste. Aurrerago, Lurgaiak Fundazioko kideek landaketa gehiago egingo dituzte lur sail horretan.

Proiektuak udalaren eta Jaur-laritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren laguntza du.

## Mallabiko Udalak parkeko haur gunea berritzeko lanak esleitu ditu

**MALLABIA • J.D.**

Mallabiko Udalak Elizoste parkean dagoen haurrentzako gunea berritzeko lanak esleitu ditu, 62.661 eurotan. Eremu berriak, guztira, 10 jolas berri izango ditu, 12 urtera arteko haurrei zuzendurikoak, aniztasun funtzionala duten haurrek erabiltzeko guztiz edo partzialki egokitu daitezkeen ekipoekin. Elizoste parkean dagoen haur-jo-

laserako guneak mantentze-lan "egokia" izan arren eta orokorrean ondo egon arren, kautxuzko lauzen zoruaren zoladura eta egungo jolasak zeozer hondatuta daudela azaldu dute Mallabiko Udaletik. "Beharrezkoa da horiek berritzea, indarrean dauden zehaztapen teknikoak betetzen direla bermatzeko", diote udal arduradunek. Aurreikusitako jolasak gune bitan

instalatu dira; parkeko leku berean, baina azalera handiagoa hartuta, lorategiaren mugaraino. Eta elizaren eraikinaren ondoan dagoen berdegunearen zati txiki-kiari ere bai. Han, belar gaineko oreka-jolasak ipiniko dituzte, gaur egungo jolasgunearen eta Elizalde plazara igotzeko ezpondan dagoen txirrista handiaren arteko lotura ahalbidetzeko.



Parkea orain dagoen moduan eta zelan geratuko den.

## Ainhoa Ruiz de Infantek Otxandion jokatu du binakako txapelketako partidua, domekan

Txapelketako bigarren garaipena eskuratu dezake

**OTXANDIO • J.D.**

Abendu amaieratik martxan da Ados klubak antolaturiko binakako pilota txapelketa eta hantxe lehiatzen dabil Ainhoa Ruiz de Infante otxandiarra. Oihana Orbe-gozo azpeitiarra du atzelari.

Orain arte ligaxkan jokaturiko partidua bakarria irabazi egin dute.

Domekan bigarren garaipena eskuratzen ahaleginduko dira Otxandion, Ruiz de Infanteren sorterrian. Iera Aguirre eta Leire Galeano izango dituzte aurkari. Partidua 12:30ean hasiko da. Aurretik Iluntxo pilota eskolako gazteen partidua egongo dira.



Ainhoa Ruiz de Infante Etxebarrin, txapelketako lehenengo jardunaldian. **ADOS.**





**Athletic Club**



**Vs**



**Real Madrid**



**Athletic Club**



**Vs**



**RCD Espanyol**

**Ligako eta Kopako partida guztietarako  
sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan**



**Atheticek San Mamesen jokatu dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOK hemendik aurrera.**

**Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOK egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!**

**Zozketan parte hartzeko azken eguna: urtarrilaren 16an (Kopa) eta 17an (Liga).**

**Okm:**  
*batzen gaituen  
distantzia*

*Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!*



**anboto  
kide**



# Anbotokideen txokoa

## URTARRILEKO ZOZKETAK



**Iratxo**en kantu sekretuak ikuskizunerako sarrera bikoitza. Zornotza aretoan urtarrilaren 21ean.

\*Eman izena gure webgunean.




**Kelonia eta itsasoa** antzerkirako sarrera bikoitz bat. Elorrioko Arriola antzokian urtarrilaren 22an.

\*Eman izena gure webgunean.

**Okm:**  
batzen gaituen distantzia

Egin zaituz Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



## Jolasguneak egokitzea eta kale garbiketa indartzea dira Zaldibarko aurrekontuen lehentasunak

Zaldibarko Udalak 3.445.268 euroko aurrekontua onartu du 2023rako EAJren eta PSEren aldeko botoekin

### ZALDIBAR • A. M.

EAJren eta PSEren aldeko botoekin Zaldibarko Udalak 2023rako aurrekontuak onartu ditu. 3.445.268 eurokoa da aurrekontua, iaz baino 15.681 euro gehiago. Udalaren esanetan, zaldibartarren "ongizatearen aldeko apustua" egiten jarraituko du. Inbertsiorik garrantzitsuenetarikoa bide publikoen eta kaleen man-

tentzea izango da; 185.500 euro ipiniko dituzte horretarako. Horrez gainera, udalak 264.319 euro ipiniko ditu Solabarria futbol zelaiko belarra berritzeko.

Bestalde, kale garbiketa indartuko dute eta 16.500 euro ipiniko dituzte horretarako. EH Bilduk begi onez ikusi du erabaki hori. Beste 60.000 euro ere inbertituko dituzte ekortzeko makina erosteko.



Solabarria zelaia.

## Inbertsioak %5,55 jaitsiko dira Berrizko udal aurrekontuetan

6.485.000 euroko aurrekontu proiektua onartu dute EAJK eta PSEk osatzen duten gobernu taldearen aldeko botoekin; EH Bilduk eta Podemosek aurka bozkatu zuten

### BERRIZ • A. M.

Berrizko Udalaren aurrekontua ia %3 hazi da 2023an, 182.000 euro gehiago hain zuzen ere. Guztira, 6.485.000 eurokoa izango da. Udal gobernu taldearen aldeko botoekin onartu zuten proposamena; EH Bilduk eta Podemosek aurka bozkatu zuten. Igoera langileen soldata igoyeraren eta KPlaren igoyeraren ondorio dela gehitu dute udaletik. Inbertsioak %5,5 jaitsi dira; obrarik esanguratsuen ur parkearen eraikuntza izango da, 220.000 euroko inbertsioagaz. Elizondoko lursail batzuk erosteko, udalak 57.490 euroko inbertsioa egingo du. Horrez gainera, HAPO berri bat idazteari ekingo diote.



Berrizko kiroldegia.

### EH Bildu aurka

EH Bilduk kirol eskaintzarako "zentimo bakar bat ere" ez ematea leporatu dio Zaldibarko Udalari, eta, ondorioz, 2023ko aurrekontuen proposamenaren aurka bozkatu zuen. "Ezin dugu aurrekontu hori babestu", azaldu zuen Eneritz Azpitarte zinegotziak. Hipermuebleren lokalera kopurua ere kritikatu dute. "Beste urte batez, aurrekontuko partida nagusia ezertarako balio ez duen eraiki batera bideratuko dugu. Kudeaketa txarraren adibiderik argiena da hau."

### Bost proiektu

Azkenik, aurrekontu parte hartzaileen prozesuko bost proiektu aurten gauzatuko direla azaldu du Zaldibarko Udalak; 15.000 euroko partida ipiniko dute horretarako.

## Iurretako Udalak hiru mendi erosi ditu Gallanda inguruan, bertako espezieak landatzeko

Udalak 96.000 metro karratu erosi ditu guztira, eta lehendik zituen 74.000 metro karratuei gehituko zaizkie.



Iurretako Udalak espezie autoktonoa sustatzea du helburu.

**IURRETA** • J.G. / A.B.

Udalak hiru mendi erosi ditu Gallanda inguruan eta udalaren jabetzako mendiekin mugakide diren lursailetan. 96.000 metro karratu bereganatu dituzte bertako espezieak landatzeko, eta udalak lehendik zituen 74.000 metroei gehituko zaizkie.

Udal arduradunek diotenez, "Aldundiagaz lankidetzan eta erositako lursailak espezie autoktonoekin basoberrituz, udal ondarea handitu egingo da, mendiok onura publikoak izango direlako eta jasangarritasun-irizpideen araberrako kudeaketa eraginkorragoa ahal-

bidetuko delako". Iñaki Totorikaguena alkateak dioenez, "bizi dugun trantsizio klimatikoan espezie autoktonoa sustatzea da helburua. Baso autoktonoak titulartasun publikoko mendietan hartzen duen baso-azalera handituz, oreka ezin hobea lortzen da naturgune horien kontserbazioaren eta basogintza-sektorearen jarduera ekonomikoaren artean". Ildo horretan, udalak mozioa onartu zuen iaz. Eta, apirilean, Aldundiak hainbat arbola landatu zuen bertan, mendiak baso autoktonoekin lehengoratu eta eukaliptoaren hedapena galditzeko.

## Iñaki Totorikaguena da EAJren Iurretako alkategaia



2007tik da Iurretako alkate Totorikaguena. Lehenago zinegotzi izandakoa ere bada.

**IURRETA** • E.H. / A.B.

Iñaki Totorikaguena Sarrionandia (Iurreta, 1969) izango da EAJren Iurretako alkategaia 2023ko udal hauteskundeetan. 2007tik herriko alkate izan denak "etorkizunari ilusioz" begiratzen diola adierazi du. "Lehenengo egunean lez, lana, dedikazio osoa, hurbiltasuna eta

proiektu ilusionagarriak" eskaintzeko prest agertu da iurretarra. Kudeaketaren gardentasuna eta zorroztasun ekonomikoa ipini ditu ibilbide-orri modura. Aurrera begira proposaturiko proiektuen artean irisgarritasun lanak egitea, bizikleta-plana eta Bidebarrieta kalea berritzea daude.

## Garaitarrek San Anton eguneko erremata egingo dute martitzenean

12:00etako meza amaitu eta segidan egingo dute enkantea, Elizabarrin. Gero, pandemiak etendako ohitura berreskuratuko dute bazkaria egingez Otea Loran elkartean

**GARAI** • EKAITZ HERRERA

Urtarrilaren 17an San Anton eguneko erremata tradizionala egingo dute Garain. Enkantea Elizabarrin egingo dute, 12:00etako meza amaitu eta berehala. Errematara baserriko produktuak eraman gura dituenak mezarako eraman beharko ditu. Lazaro Milikua garaitarrak jakinarazi duenez, errematan baturiko dirua Caritasentzat eta parrokiarentzat izango da.

Egun horretan bertan beste ekitaldi bat ere izango dute. Otea Loran elkarteko bazkideek bazkaria egingo dute elkartearen egoitzan. Izurriak albo batera utzitako urteroko ohitura hori berreskuratuko dute modu horretan.



Iazko erremata Elizabarrin elizpean egin zuten.



CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL

# ZORNOTZA

LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

*Euskadi, auzolana, bien común*





ENPLESLIKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SALA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

## 2023 - IKASTARO BERRIAK

LANDUNEI ETA LANGABEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK			
LANBIDE K.	IKASTAROA	ORDUAK	DATAK
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK (goizez)			
<b>23480013</b>	Mendekotasuna duten pertsoneri laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan (SSCS0208), MF1016, MF1017, MF1018, MF1019 (Langabetuek lehentasuna)	370	2023/02/21 2023/06/19
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
<b>OC23480034</b>	Karbono-altzairuzko TIG soldadura (UF1626)	90	2023/02/21 2023/03/28
<b>OC23480072</b>	Altzairu herdoilgaitzezko TIG soldadura (UF1627)	90	2023/04/19 2023/05/24
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK			
<b>OC23480001</b>	Programazio egituratua (UF2178)	90	2023/03/01 2023/04/24

**OHARRA:** Taldeak sortu ahala, hasiko dira ikastaroak.

Informazioa eta izen ematea:  
[www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus) (Prestakuntza, Kodea)






Urritxe auzunea, z/g · Tfno: **688 665 300** · **946 730 251**  
**48340 AMOREBIETA-ETXANO** (Bizkaia)  
 e-mail: [maranburu@fpzornotza.com](mailto:maranburu@fpzornotza.com) · [www.fpzornotza.com](http://www.fpzornotza.com)

# Maria Jesus Irazabal eta Jose Mari Zugazaga, Athleticen partidua VIP eran gozatzeko

Anbotokide izatearen abantailak aprobetxatuta, bikote durangarrak VIP eran gozatu zuen Athleticen eta Osasunaren arteko derbia. Esperientziak gozatu zutela adierazi zuten



Maria Jesus Irazabal eta Jose Mari Zugazaga.

**BILBO** • J.G./E.H.

Maria Jesus Irazabal eta Jesus Mari Zugazaga senar-emazteek Anbotokide izatearen abantaila eder horietariko batez gozatu dute jada. Astelehenean Athleticen eta Osasunaren arteko derbia jokatu zen San Mamesen, eta bikote durangarrak VIP eran gozatu ahal izan zuen partidua, estadioko jarlekurik onenetan eta gura adina jan-edanagaz euren eskura. Datozen egunetan, ANBOTOK Athleticen partidu gehiagotarako sarrera bikoitzak zozkatuko

ditu Anbotokide diren artean. Espanyolen aurkako partidurako (Espainiako Errege Kopa) eta Real Madrilaren kontrako norgehiagokarako (Espainiako Liga) izango dira zozkatuko diren hurrengo sarrera bikoitzak. Saridunek VIP eremutik jarraitu ahalko dituz-

## ANBOTOK Athleticen partiduetarako sarrera gehiago zozkatuko dituzte Anbotokideen artean

te norgehiagokak, erosotasun guztiak inguruan. Oraindino Anbotokide ez bazara, horretarako aukera esku-eskura duzu *anboto.org* atarian.

## Politikan

Jesica Ruiz Pérez  
PSE-EE



## Teknologia

2023an Erregeek opari mingots bat ekarri diote Durangoko Udalarari: zibereraso bat. Eraso hauek gero eta ohikoagoak dira, eta, babes-sistema oso onak eduki arren, beti gerta daitezke. Ezin genituen ordenagailuak piztu, ezin genuen urrutitik lan egin, ezin genuen posta elektronikoa erabili... Egoera honetan konturatzen gara teknologiaren eta Interneten mende gaudela. Ni oso teknologia zalea ez naizen arren, errealitate bat da teknologia berrietara egokitu behar gara, baina uste dut ez gara konturatzen gauza positibo asko izan arren, negatiboak ere badituela.

Lehenik, adineko asko sistematik kanpo geratzen ari dira, ezagutzarik eta erabiltzeko gaitasunik ez dutelako.

## Eraso hauek gero eta ohikoagoak dira, eta, babes-sistema onak eduki arren, beti gerta daitezke

Bigarrenik, gutako bakoitzaren gainean erabateko kontrola dute: badakite zer erosten dugun, zer gustatzen zaigun, non gauden eta abar.

Eta, azkenik, teknologiarekin batera doazen sare sozialak daude. Alde batetik, itxuraz zoragarriak diren bizitzak erakusten dizkigute, eta beste aldetik, anonimotasunaren azpian nahi den guztia esateko aukera ematen digute, hala nola errespetu faltak, gezurrak, iradokizunak... Eta hauek guztiak ez diete batere laguntzen gero eta ugariagoak diren buruko gaixotasunei.

Teknologia, dena bezala, bere neurrian.

## Durangaldea asteen

### Loraldia Eskolaren erakusketa 14tik aurrera egongo da ikusgai, Zelaieta zentroan

**ZALDIBAR** | Loraldia Eskolaren erakusketa urtarrilaren 14tik 28ra egongo da ikusgai, Zelaieta zentroan. Erakusketan Zornotzako Andra Mari Ikastolako HH5 urteko haurrek sorturiko lanak egongo dira ikusgai. Ikasleek, Ttipia proiektuaren bitartez ezagutu dituzten lau artista plastikoren adierazpide artistikoan oinarrituta sortu dituzte lanak.

### Irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dituzte Argiñetan, 385.000 euroko partidagaz

**ELORRIO** | Elorrioko Udalak hobekuntza lanak egingo ditu Argiñetan, 385.000 euroko diru partidagaz. Batetik, errepide nagusitik ermitara doan bidea egokituko dute. Bestetik, pibote bat ipiniko dute ibilgailuei sarbidea saihesteko nekropolira. Azkenik, hainbat egokitzapen egingo dute inguruetan.



### JAEDen zozketa solidarioko Renault Clio kotxea 05.374 zenbakiak irabazi du

**DURANGO** | Urtarrilaren 8an egin zuten zozketa, eguerdian, JAEDek Durangoko Kalebarrian duen biltegian. Zozketa hasi bezain laster irten zen sari nagusia den Renault Clio autoaren zenbakia: 05.374.

Aurten, salmentara ateratako 65.000 txartelak saldu dituzte. Sariak aste honetan zehar Andra Mariko elizpean dagoen standean jaso daitezke eta, ondoren, JAEDek Intxaurren duen lokalean egongo dira eskuragarri, martxoaren 31ra arte.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**Iurreta**  
Eraginazko Liburuak  
Herri-Elkarteen Kulturaren Gaita

**EKINTZAK URTARRILAK 10 - OTSAILAK 3 BITARTEAN IZANGO DIRA**  
Bibliotekak Maiztegi Herri eskolari eskaintzen dizkion irakurle klub guztietan HH2-LH6 Joxantonio Ormazabal lanak landuko dira.

**URTARRILAK 17 ENERO**  
18:30 "Joxan Ormazabal" mahai ingurua  
Parte-hartzaileak: PILI LITAGO, JESUS MARTIN ELEXPURU eta XABIER MENDIGUREN  
Moderatzailea: PERU MAGDALENA ARRIAGA  
Sarrera gonbidapenarekin

**EGITARAUAK IKUSTEKO:** <https://labur.eus/dex09>

Ekintzetan izena emateko: 94 681 27 26  
bibliotekakoekintzak@iurreta.eus / WhatsApp: 688 86 37 36



**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

Azken asteetako moduan, larrialdietan artatzen jarraitzen dugu, baina eguneroko pazienteak ere lehenbailehen artatzen hastea espero dugu, osasun agintarien baimena jaso bezain laster.

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - [uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)

RPB: 145-13



## 'Gag Movie'

ANTZERKIA Elorrio :: Urtarrilak 13

### Yllanak zinema ardatz duen komedia dibertigarria aurkeztuko du

Yllana konpainiak *Gag movie* obra aurkeztuko du Arriola antzokian, gaur, 20:00etan. Denboran harrapatuta dauden lau pertsonaren istorioa da, umorez eta irudimen handiz kontatua.

César Maroto, Rubén Hernández, Susana Cortés eta Antonio de la Fuente aktoreek oso bidaia dibertigarria egiteko prest dauden zinemagile 'troupe' berezia osatuko dute, ikusleagaz batera Euskal Herriko zazpigarren arteko unerik ikonografikoenetan

zehar barreiatuko dituen bidaia. Zinema zelakoa den eta zelan egiten den erakutsiko dute. Zelan bizi den eta, batez ere, zelan gozaten den. "Zazpigarren arteak antzerkiagaz egingo du topo, elkarregaz zortzigarren artea osatzeko, edo bederatzigarrena, edo hamargarrena. Zerbaki edozein dela ere, arte dibertigarri eta zorabiagarria da, gure begien aurretik segundoko 300 fotograma baino gehiagora igaroko dena", dio sinopsiak.

## Urtarrilaren 13an

**DURANGO berbaldia**  
'Zer dira muturreko gertakari meteorologikoak?' (Hizlaria: Onintze Salazar meteorologoa-Euskalmet), 18:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

**DURANGO kontzertua**  
'Zergatik mobilizatu U28an?' dinamikaren aurkezpena, 19:30ean, O'Connors tabernan.  
Kontzertua: KATU + AINKE.

**ELORRIO kontzertua**  
Nhil+Baizera!, 22:30ean, Elorriko Gaztetxean.

**ZORNOTZA antzerkia**  
'Redada familiar' (Vaiven konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

**IURRETA antzerkia**  
'Bihotz bihotzez' (Teatro Paraíso), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

## Urtarrilaren 14an

**ABADIÑO ikuskizuna**  
'Leyenda, no me olvides. La historia de una niña y su caballo' (De Norte a Sur), 18:30ean, probalekuan.

**DURANGO bisita gidatua**  
Ramón de Zubiaurreri buruzko erakusketa ezagutzeko bisita gidatua,

11:30ean eta 12:30ean, Arte eta Historia Museoa. Gaztelaniaz.

**MALLABIA bertsoak**  
Bertso-afaria Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto bertsolariekin, 21:00etan, Askalde elkartearen. Txartelak frontoian eta herriko tabernan.

## Urtarrilaren 15ean

**DURANGO dantzaldia**  
Nagusientzako dantzaldia, 18:30etik 20:30era, Landako elkartegian.

## Urtarrilaren 17an

**IURRETA mahai-ingurua**  
'Joxan Ormazabal' mahai-ingurua, 18:30ean, herriko bibliotekan. Parte-hartzaileak: Pili Litago, Jesus Martin Elexpuru eta Xabier Mendiguren. Moderatzailea: Peru Magdalena Arriaga. Esker Oneko Jardunaldien barruan.

## Urtarrilaren 18an

**IURRETA irakurketa**  
Paperezko Hegoak irakurle kluba: 'Patxi Errementaria' eta 'Hiztegi Jolastia' liburuen komentarioa. LH3ko

gaztetxoentzat 17:00etan, eta LH4ko ikasleentzat 18:00etan. Dinamizatzailea: Peru Magdalena Arriaga. Esker Oneko Jardunaldien barruan.

## Urtarrilaren 19an

**DURANGO bisita gidatua**  
Ramón de Zubiaurreri buruzko erakusketa ezagutzeko bisita gidatua, 18:00etan eta 19:00etan, Arte eta Historia Museoa. Euskaraz.

**ELORRIO solasaldia**  
'Aske maite, aske bizi: nor da aske Elorri?' solasaldia, 18:00etan, Iturri kultur etxean.

## Urtarrilaren 20an

**DURANGO ikuskizuna**  
Hirukoa Galaren IV. edizioa (Berbaro elkarte), 19:30ean, Plateruena kafe antzokian. Irabazleek Errigorako otzara eder bat eramango dute etxera.

**ELORRIO musika**  
-Gailu + Otoi, 22:30ean, Ateneoan.

**IURRETA antzerkia**  
'Porque me oprime el corsé' (Federación Teatro Besarkadak Luna Llena), 19:00etan, Ibarretxen.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Zinema

:: **Berriz**  
KULTUR ETXEAN

• **El gato con botas: el último deseo**  
barikua 13: 17:00  
domeka 15: 17:00

:: **Durango**  
ZUGAZA ZINEMA

• **Avatar 2**  
barikua 13: 20:00 (3D) / 20:30  
zapateria 14: 20:00 (3D) / 20:30  
domeka 15: 19:00 (3D) / 16:30

• **El río de la ira**  
barikua 13: 18:00 / 20:30  
zapateria 14: 18:00 / 20:30  
domeka 15: 17:00 / 20:15  
astelehena 16: 18:00 / 20:15  
martitzena 17: 18:00 / 20:15  
eguztzena 18: 19:00

• **El falsificador de pasaportes**  
barikua 13: 18:00  
zapateria 14: 18:00  
domeka 15: 18:00  
astelehena 16: 18:00 / 20:15  
martitzena 17: 18:00 / 20:15  
eguztzena 18: 19:00

• **Operación Fortune**  
barikua 13: 18:00  
zapateria 14: 18:00  
domeka 15: 20:15  
astelehena 16: 18:00 / 20:15  
martitzena 17: 18:00 / 20:15

• **Aida**  
eguztzena 18: 19:00

:: **Elorrio**  
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Close**  
zapateria 14: 20:00  
domeka 15: 20:00  
astelehena 16: 20:00

• **Ama Muu etxera itzuli da**  
domeka 15: 17:00

:: **Zornotza**  
ZORNOTZA ARETOA

• **El peor vecino del mundo**  
zapateria 14: 20:00  
domeka 15: 20:00  
astelehena 16: 20:15

• **El inspector Sun y la maldición de la viuda negra**  
zapateria 14: 17:00  
domeka 15: 17:00

• **Cerdita**  
martitzena 17: 20:15

• **Ainarak**  
eguztzena 19: 20:15

## Berrizko jaiak 2023

### Urtarrilak 13, barikua

**18:30 San Antonio XVI. frontenis txapelketa** Olakueta frontoian.

**19:30 sagardotegi ibiltaria eta odoloste jana.** Ondoren, Donien Atxa altxatuko dute.

### Urtarrilak 14, zapatua

**12:00 'Bi ipuin' pailazo ikuskizuna** Olakueta frontoian.

**18:00 Luhartz taldeagaz erromeria** probalekuan

**19:00 'Hobe ixilik!' antzezlan**a Kultur Etxean.

### Urtarrilak 15, domeka

**11:00 Barazki eta fruitu erakusketa**, Probalekuan.

**12:00 Baserriko oilasko dastatzea**, Olakueta plazan.

**12:30 Iremiñe - San Lorentzo dantza taldeen emanaldia**, Olakueta plazan.

### Urtarrilak 16, astelehena

**19:00 Nekazaritza-olinpiada**, Olakueta frontoian.

### Urtarrilak 17, martitzena

**12:30 Meza**, Antonio Deunaren basilizan.

**19:00 Peio Ramirezen kontzertua**, Antonio Deunaren basilizan.


### Urtarrilak 18, eguaztena

**17:00-19:00 Barrakak merkeago.**



Urtarrilak 14, zapatua

Kuartz + Dekot + Dj Edozer, Hiltegixe Gaztetxean



Peio Ramirez.



Luhartz.

**HIERRROS**  
**HR** IEZU S.A.  
burdinak  
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131 - Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net



**express**

Zengotitabengoa kalea,  
BERRIZ 946 824 215

Produktu ekologikoen  
eskaintza



www.berriz.eus

Antonio Deuna Jaiak



# Itziar Ituño eta Ramon Agirreren 'Hobe ixilik!' antzezlanak ikusi ahalko da, besteak beste, Berrizko San Antonioetan

Urtarrilaren 14an izango da 'Hobe ixilik!' antzezlanak; musikarako eta dantzarako tartea ere egongo da jaietan

## JAIK • A. M.

Gaur hasiko dituzte Berrizko San Antonio jaiak ofizialki; 19:00etan, kalejira hasiko dute Olakueta Bentazarreko Mutiko Alaiekin batera, eta ibilalditxoak egin ostean, 19:30ean, Donien Atxa altxatuko dute Olakueta plazan bertan. Zapatuan, dantza eta antzerkia izango dira protagonistak. Goizean, *Bi ipuin* pailazoaren ikuskizuna egongo da eta 18:00etan, Luhartz taldearen erromeria. 19:00etan, Itziar Ituño eta Ramon Agirre aktore ezagunek *Hobe ixilik!* antzezlanak taularatuko dute Kultur Etxean. Salomé Lelouch egilearena da obra, eta bertan "gai potoloak" jorratuko dituzte, sinopsian dioten lez. "Gizona eta emakumea, solasean, zirika, eztabaidan. Zertaz? Berdin dio. Eguneroko kontuak, gazta-tarta, patineta, almorranak... edo gai potoloak, aldaketa klimatikoa, politika, Me Too... Baina esan, dena esan behar al da? Isiltzea ez al da hobe batzuetan?". Gaur estreinatuko dute, Hondarribian (Gipuzkoa); Berrizkoa emango duten bigarren



Itziar Ituño eta Ramon Agirre.

saioa izango da. Begoña Bilbaok egin ditu zuzendari lanak.

Urtarrilaren 15ean, goizetik hasiko dute festa berriztarrek. 11:00etan, eskualdeko barazki eta fruitu erakusketa egongo da, probalekuan. Ordu bete geroago, baserriko oilasko dastatzea egingo dute, toki berean. 12:30ean, Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeek dantza ikuskizuna egingo dute, Olakueta plazan.

**Gaur altxatuko dute Donien Atxa, 19:30ean, Olakueta plazan; aurretik kalejira egingo dute**

Astelehenean, nekazaritza-olinpiaden txanda izango da, 19:00etan hasita. Martitzenean, Peio Ramirezek kontzertua emango du.

## Kontzertuak gaztetxean

Bestalde, Hiltegi gaztetxean kontzertu bat antolatu dute azken urtean izandako lapurretek eragindako kalteei aurre egiteko. Urtarrilaren 14an, Kuartz eta Dekot taldeek zuzeneko emanaldia egingo dute, 22:00etan; kontzertuaren ondoren, DJ Edozer-ek girotuko du festa. Sarrera hiru euro izango dira.

Huriza kalea, 9  
Tel: 946 824 009  
48240 BERRIZ

**Ibai Ondo**  
Ferreteria · Burdindegia

Iturriza, 10  
946 824 489  
f 946 824 489  
ferreteriaibaiondo@gmail.com  
BERRIZ

**pedrojuan**  
J A T E T X E A

SAN ANTONIO, 1.  
48.240 BERRIZ BIZKAIA  
TEL: 94.682.62.46

ETXEBARRIA  
E S T A N K O A

Iturriza, 14  
Tel./Faxa: 946 827 958  
BERRIZ

**T.A.**  
TORNILLERIA  
AMEZUA S.A.

www.tornilleria-amezua.com

**GAER** **DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

**keinu**  
OPTOMETRIA ZENTROA

PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.


- Jokabide opt
- Haurren ikus
- Ikusmenaren
- Jatorrizko eri
- Fototerapia c
- SENA entzun
- Kirol ikusmer
- Garuneko les
- Orto-k eta mi

















































































Arkaz 3 • 48  
www.keinu



# LABIRINTOA

Labirinto honetan egin bidea sekuentziari jarraituta.








# ESAERA ZAHARRA

Bete laukiak dagokien letragaz  
behean daukazu alfabetoari jarraituta.



# DIFERENTZIAK

Topatu zazpi diferentziak.



# “Hainbat gune itxita, kultura musikala galdu egin dela iruditzen zaigu; Durangoren kasuan are nabarmenago”

Nevadah taldeak 'Still goes on' lana aurkeztuko du, urtarrilaren 28an, Durangoko Plateruena Antzokian; John Dealer & The Coconuts taldeagaz joko dute



Nevadah. IBON URIZAR

## MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Sare sozialek egunerokoa baldintzatu eta erritmoa markatzen duten garaian, Durangaldeko Nevadah taldeak isileko lana egitea aukeratu du, eta hiru urte eta erdian lokalean gotortuta egon ostean bueltan da *Still goes on* lan berria besapean. Ez da nobedade bakarra, izan ere, Ekhi Arrieta abeslariagaz kaleratuko duten lehenengo lana ere bada; Arrietagaz batera, Jon Agirrebeitiak (gitarra), Pello Bañosek (bateria), Anartz Ugartek (baxua) eta Liher Arteagak (gitarra) osatzen dute Nevadah. Urtarrilaren 28an Plateruena Antzokian aurkeztuko dute lan berria, John Dealer and The Coconuts taldeagaz batera. Hain identifikagarriak ziren jantzi gorriak armairuan gorde arren, zuzenekoak beti bezain basatiak izango direla aurreratu dute.

### Bizirik zaudete.

**Jon Agirrebeitia:** Hiru urte eta erdian itzalean lanean ibili gara, horietariko bi abeslaririk barik. Luze joan da, baina inoiz baino gehiago entseatu dugu, egia esateko. Gure soinua borobiltzen nahikoa lan egin dugu, baita abestiak, zaha-

rrak zein berriak, Ekhiaren ahotsera moldatzen.

**Anartz Ugarte:** Denari forma eman arte ez dugu ezer publiko egin gura izan. Estudiora sartu aurretik aurkeztu genuen Ekhi; orokorrean, lasai lan egin dugu, oztopo txikiren batez, baina gura genituen epeen barruan.

### Zelan moldatu zara taldera, Ekhi?

**Ekhi Arrieta:** Taldea jarraitzen nuen, eta banekien abeslari bila zebiltzala. Deialdia egin zutenean ez nintzen animatu; Pello ezagutzen nuen, eta oraindino abeslari bila zebiltzala esan zidanean, animatu egin nintzen. Proba egin eta gustatu zitzairen. Prozesu luzea izan da ordutik honakoa.

**'A thought leads me to you' singlean igartzen da rockari eutsi diozuela. Horrela da lan osoan?**

**J.A.:** Ez da aldaketa drastiko bat izan. Uste dut garapen naturala izan dela, eta Ekhi ere bere lekua eman diogula esango nuke. Orain soinu trinkoagoa dugula esango nuke, eta kanten artean koherentzia bat mantendu dugula. Batzuk dantzagarriagoak dira, beste batzuk gehiago burua

mugitzekoak, baina kanta bakoitzak bere puntua duela iruditzen zaigu.

**A. U.:** Ez genuen abesti bilduma bat egin gura. Oraingo honetan abesti hauek irten zaizkigu, Nevadah izaten jarraitzen dugu. Bluesa eta bestelako doinuak gustuko izaten jarraitzen dugu, jakina, baina gurago genuen lanaren kontzeptu osoago bat landu, eta, horregaitik, abestiren bat edo beste kanpoan geratu da.

**Liher Arteaga:** Diskoan denerik dagoela esango nuke, kantatik kantara ikusten da desberdinak direla, baina, aldi berean, igartzen da Nevadah direla. Lehenengo diskotik bigarrenera eboluzio bat egon zen moduan, hemen ere egon da.

**Euskara aukeratu duzue abesti birako.**

**J. A.:** Gure hizkuntzari keinu bat egin gura genion, besterik barik. Urteetan buruan izan dugun gauza bat izan da, taldean eztabaidagai izan dena. Buruan izan dugun kontu bat izan da, baina orain artean ez duguna egin.

**E. A.:** Dena nahasteko aitzakia bat izan da nire sarrera (barrez).

### Berrizen grabatu duzue, Lorentzon.

**A. U.:** Oso gustura egon gara Lorentzon, eta Aitor Ariño ia beste taldekide bat izan da. Guretzat itzela izan da! Aitorrek 35 urte daramatza grabatzen, eta Euskal Herriko talderik onenek bertan grabatu dute.

**“Ez genuen abesti bilduma bat egin gura. Oraingo honetan abesti hauek irten zaizkigu, Nevadah izaten jarraitzen dugu”**

**J.A.:** Oiartzunen ere oso gustura egon ginen, egundoko esperientzia izan zen, asteburu batez elkarregaz egon ginen, elkarregaz grabatu, lo egin... baina oraingo honetarako beste gauza batzuk bilatzen genituen. Egun gehiagotan egon ahal izan gara estudioan, eta gertutasuna ere eskertzekoa izan da, bai Aitorrena, baita estudioa Berrizen bertan edukitzea ere.

**L. A.:** Meca estudioetan beste filosofia bat zuten grabatzeko, eta eurekin ere oso gustura lan egin genuen. Baina orain hau erabaki dugu eta oso pozik gaude emaitzagaz.

### 28rako gogotsu?

**A.U.:** Bai, izan ere, ekainean lau urte beteko dira azkenekoz kontzertu bat eman genuenetik. Gainera, Durangon etxean lez gaude, eta horregaitik gura genuen hasieratik bertan egitea kontzertua; oso gatxa da berotasun hori beste norabaitera mugitzea. Horrez gainera, Plateruena itxita egon den denboran kultura musikala galdu egin dela uste dugu, eta horregaitik ere gura genuen bertan egitea.

**J. A.:** Lehen Sapuetxe, Sorginola eta Plateruena bera zeuden Durangotik irten barik. Herri guztietan gertatu den zerbait dela iruditzen zaigu, baina Durangoren kasuan nabarmena da. Horregaitik ere, Durangon rock gau bat egitea gura genuen, eta rockzaleen mundu hori batzea. Beste doinu batzuetan nabarmenagoa da, agian, eta guk ere horixe gura dugu, elkar-tzea.



Gaur joko du Shibari taldeak.

## Amaraun arte fabrikaren I. Maketa Lehiaketa egingo dute asteburuan

Barikuan, zapatuan eta domekan izango dira kontzertuak, eta sei talde igoko dira oholtzara

### MUSIKAGINTZA • A. M.

Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikak antolatu duen maketa lehiaketako finaleko kontzertuak izango dira asteburu honetan. Zuzeneko emanaldi hauen ondoren erabakiko da zein musika taldek eramango duen saria. Guztira, sei taldek parte hartuko dute final honetan, gau bakoitzeko bik. Gaur, barikua, metal doinuak nagusituko dira Abadiñoko kulturean. 19:00etan, Shibari talde ondarroarrak emando du kontzertua; ondoren, 20:00etan, Fraktura bizkaitarrek beren

thrash metal doinuak erakutsiko dituzte. 18:00etan zabalduko dituzte ateak.

Zapatuan, doinu melodikoak nagusituko dira Amaraunen. Iñigo Riki Zaratamoko bakarlariak zabalduko du gaualdia, 19:00etan; ondoren, Sweet Ragek emango du kontzertua. Abadiñon du talde honek oinarria; 2021ean sortu zuten Cris Ibarrek, Ruben Montotok, Aingeru Guerrerok, Edu Perezek, Dani Benitok eta Christophe Tytgatek. Emanaldi bakoitzeko sarrerak egunean bertan salduko dira, atean, bost euroan.

### Sari banaketa

Domekan, rock doinu klasikoak jorratzen dituzten taldeen txanda izango da. Ostrich Wedding eta Moonshiners taldeek joko duten kontzertua. Lehenengo Arrigorriatik (Bizkaia) datorren taldea da; Moonshiners taldekoak durangarrak dira. 2019an lau abestiko lan laburra kaleratu zuten. Kontzertu bi horien ondoren, 21:30ean, sari banaketa egingo dute. Talde irabazleak bertako estudioan grabatu ahal izango du bost egunez, Pott Produksioagaz.

## Egitarau berezi batez ospatuko dute San Agustin kultur gunearen 25. urteurrena

Kultur espazioak mende laurdeneko jarduna ospatuko du gaur arratsaldean aurkeztuko duten egitarauagaz

### ANTZERKIGINTZA • A. M.

Durangoko San Agustin kulturean 25 urte beteko ditu 2023an. Hori ospatzeko, egitarau berezia antolatu dute datozen hileetarako. Gaur, barikua, aurkeztuko dute egitarau hori, berariaz horretarako antolatutako galan; 20:00etan izango da hitzordua. 25 urte hauetan 1.000 emanalditik gora antolatu dituzte, eta 175.000 ikus-entzule baino gehiago joan dira bertara Durangoko Udalaren berbetan.

"San Agustin Durangoko kultur epizentro bihurtu da eta dozenaka elkarte, konpainia eta kolektibo dira horretaz gozaten dutenak. Sektorean ezaguna da San Agustin, konpainientzat gunerekin irekia eta irisgarria delako. Kulturaren inbertitzeak kultur sarea elikatzea dakar, eta horri eskerrak agertu dira Durangon ditugun artista handiak", azaldu dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak ohar baten bitartez.



Urte osoko egitarauagaz ospatu dute urteurrena.

## Gai librean

### Beste itzuli bat

Konturatu gabe eman diogu beste itzuli bat eguzkiari. 2022ari atea itxi eta abiatu gara 2023. urte berri honen bidaian. Gabonei, atsedean egunean eta lagun eta familia giroan goxo egoteari agur esan diogu. «Erretzeari utziko diot», «goizetako pintxoak kenduko dut», «kirola egiten hasiko naiz», «familiari denbora gehiago eskainiko diot». Ilusioz eta motxila bete propositu, motxila bete plan eman ohi diogu ongi etorria urte berriari. Baina bizi garen mundu anglosaxoi honek ez du denborarik galtzen bere intereseko makineria kontsumista martxan jartzeko. Merkealdien jarraian badator *Blue Monday*, urteko astelehen tristeena izango da datorren urtarrilaren 16a.

Oinarri zientifikorik gabeko ikerketa baten arabera, urteak dituen 365 egunetatik egun tristeena da urteko hirugarren astelehena. Antza denez, marketina



Ainhoa Zabarte Narbaiza  
Behargina

### Oinarri zientifikorik gabeko ikerketa baten arabera, urteko egun tristeena da urteko hirugarren astelehena

### Astelehena, denetan eta tristeena, horrenbestez zerbait egin behar dugu horri aurre egiteko. Kontsumitu.

du jatorri *Blue Monday* delako honek. Komunikazio agentzia batek sortutako ideia da. Ikerketa pseudozientifikoa bat oinarri hartuta zabaldu zuen mezua. Ideia argia da: tristeziari aurre egiteko egin ezazu bidaia bat. Beste behin ere kontsumorako aitzakia berri bat sartu nahi digute buruan. Astelehena tristea izango dela, denetan eta tristeena, horrenbestez zerbait egin behar dugu horri aurre egiteko. Kontsumitu.

Gurean, esango nuke, oraindik ez dela asko entzuten eta ez dagoela oso zabaldua *Blue Monday* delako hau. Hala eta guzti, helduko da zaparrada telebistan, irradian, dendetan eta *Amazon* bezalako multinazional handietan. Makineria guztia prest kontsumitzera bultzatzen du.

Aldiz, nahiko *Blue Monday* dugu mundua. Amazoneko langileen greba, borrokan diharduten metaleko langileak, Pablo Gonzalez eta haren senideak, gasoleoaren eta elikagaien prezioen gorakada geldiezinak. Emantzipatu ezinean dauden gazteak, langabezia, muga harresi dutenak, egunerokoan poltsikoari begira justuan bizi diren milaka herritarrak eta abar dira triste. Hala molda dezagun tristezia, bilakatu dezagun haserre eta kontsumitu beharrean borrokatu egin beharko genuke. Herriko sarreran dagoen pankartak dioen moduan, Borroka Urte Berri On!



**Roberto Mendibil Arando**  
Trial motorretan  
Espainiako txapelketa  
ELORRIO | 1969

## “Trialean motoak ez du hainbesteko zeresanik; norberak ipintzen duena da inportanteena”

2019tik hona, elorriarrak hiru bider irabazi du Espainiako trial txapelketa eta laugarrena irabaztea du helburu aurten

**MOTORRA** • JOSEBA DERTEANO

**Roberto Mendibili betidanik gustatu izan zaio motoen mundua. Trial modalitatean espezializatu da. Gazteagotan Bizkaiko txapelketa irabazi zuen eta, ardo onaren moduan, hobetzen joan da urteak joan ahala. 2019an, 2020an eta 2022an Espainiako trial txapelketa irabazi du pre80 kategorian; hau da, 1980a baino lehenagoko motoen mailan. Aurten laugarrenez irabaztea du helburu.**

**Motoen mundua umetatik gustatzen zaizu?**

Bai, 14 urtegar lagunekin ibiltzen nintzen. Nire lehenengo motoa Mobylette bat izan zen. Gero mendiko Yamaha bat eduki nuen eta 17 urte nituenetik aurrera trialekoak erabili ditut.

**Euskal Herrian jende asko dabil trialean ala gutxi zarete?**

Tira, afizioa apur bat bajatu da, baina badabil jendea; inguruko probetan Euskal Herriko 80 bat elkartzeko gara. Gainera, hemen maila ona dugu. Esaterako, iazko hirugarren sailkatua arabarra da eta beste arabar batek ere hainbat bider irabazi du txapelketa.

**Probatu duzu triala ez den beste modalitatekerik?**

Gazteagotan enduroa probatu nuen, baina niri triala gustatzen

zait. Enduroan abiadura garrantzitsua da eta trialean, ostera, abildadea da inportanteena. Estilo hori asko gustatzen zait; mendiko ginkana moduko batean oztopoak gaintzea teknikak lagunduta. Oztopo bakoitza erronka desberdin bat da.

**2019an irabazi zenuen Espainiako txapelketa lehenengoz. Sorpresa izan zen?**

Banekien goian ibiltzeko aukera nuela. Izan ere, 2016an, lagun batzuek animatuta motoetara bueltatu nintzenez, txapelketa hirugarren amaitu nuen eta ondo nabilela ikusteak animatu egin ninduen.

**Zein izango da helburua aurten?**

Laugarrena irabaztea edo borroka horretan egotea, lesiorik edo antzerakorik ez badut.

**Irabazteko faborito izatearen presiorik sentitzen duzu?**

Tira, apur bat bai (barrez). Batez ere lasterketa hasieretan apur bat urduki egoten naiz, edozein huts erreku-peratzea kostatu egiten da eta.

**Fisikoki kirol exigentea da?**

Momentuak daude. Motokrosean, esaterako, uneoro tentsioan zaude, baina triala ez da horrelakoa. Momentu batzuk tentsio handikoak dira, baina, gero, tarte batetik bestera atseden hartu daiteke. Tri-

**Trialean ez dago errua inori botatzerik; ez motoari eta ezta beste parte hartzaileei ere, azken batean zeu bakarrik zabilzalako**

lean koordinazioa eta indarra dira garrantzitsuena, hankekin eta besoekin motoa mugitzeko eta ondo kokatzeko ahalmen hori.

**Espezialitate arriskutsua da?**

Ezetz esango nuke, ez garelako abiadura handian ibiltzen. Gure aseguruak beste espezialitate batzuetakoak baino merkeagoak dira horregaitik. Gaur egun trialean

gatxa da hanka bat apurtzea eta antzerakoak gertatzea.

**Motoak zeresan handia du emaitzetan?**

Trialean motoak ez dauka hainbesteko zeresanik; norberak ipintzen duena da inportanteena. Beste modalitate batzuetan motoak diferentzia handiagoa markatzen du, baina trialean justu alderantziz gertatzen da.

**Horrek balioa ematen dio gidariari.**

Bai, baina beste alde batetik begirata trialean ez dago errua inori botatzerik; ez motoari eta ezta beste parte hartzaileei ere, azken batean zeu bakarrik zabilzalako. Hutsa norberarena da.

**Gaur egun zein moto darabilzu?**

Bi ditut, Bultaco Sherpa markakoak. Neuk prestatu ditut, desmuntatu, konpondu, muntatu, pintatu... ordu batzuk sartu ditut!

**Non entrenatzen zara?**

Inguruko harrobi zaharretan gehienbat. Batzuetan Betsaide edo Udalatx aldera joaten naiz, baina gutxiago. Lagunekin geratzen naitzenezon Sondika inguruko gune batera joaten gara. Bizkaiko jenderik gehiena han batzen da.

**Motoen munduan baduzu ametsen bat betetzeko? Lasterketa bereziren batean parte hartzea, beste modalitatearen bat probatzea...**

Egia esanda, ez. Gerritik apur bat justu nabil eta modalitate hau eramangarria da alde horretatik. Trialak asko asetzen nau eta ez kirol ikuspegitik bakarrik, baita gidariok geure artean dugun girogaitik ere. Oso hartu-eman ona dugu. Batzuetan lasterketen ondoren elkarrengaz afaltzen dugu, bata besteari laguntzen ahalegintzen gara... Horri balio handia ematen diot.

**Beste ezer gehitu gura duzu?**

Durangoko TTM tailerrari eta Kataluniako The Magicals-i eskerrak eman gura dizkiet eskaintzen didaten laguntzagaitik.



Roberto Mendibil Espainiako txapelketako proba batean.

# Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotaleku eraberritua urtarrilaren 27an inauguratuko dute

Durangoko Udala lanean dabil lehen mailako zesta eta pilota partiduak ekartzeko inaugurazio egunerako. Ondoren, otsailaren 27an hasita, pilotaleku berriak Emakumeen Winter Series txapelketako hainbat partidu hartuko ditu

## AZPIEGITURA • J.D.

Hamar hilabeteko obren ondoren, Durangoko Udala Ezkurdi Jai Alai pilotalekua eraberritzen amaitzen dabil eta dagoeneko erabakita dute inaugurazioaren eguna: urtarrilaren 27a, barikua. Egun horri begira, lehen mailako zesta eta pilota partiduak ekartzeko lanean dabiltzala aurreratu dute udaletik. Durangoko pilota klubeko partiduak ere izango dira.

"Orain, pilota, pala eta zesta klubetako haur eta gazteek berriro gozatu ahal izango dute euren gogo eta ilusioen maila berean dagoen frontoi batez. Lan hauekin, inoiz galdu behar ez zuen distira bueltatu gura izan diogu pilotalekuari", adierazi dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak.

## Askotariko lanak

Luis Pueyo arkitektoak 1952an eraikitako frontoian egindako lanak estalkia ordezkatzeko eta irisgarritasuna, jolasgunea eta energia eraginkortasuna hobetzen oinarritu dira. Guztira, 1.271.826 euroko inbertsioa izan du.

Lanak estalkitik hasi ziren, eta horrek eragin du inbertsiorik handiena. Izan ere, frontoiaren koka-



Udal ordezkariak zesta-punta eta pilota eskoletako arduradunekin Ezkurdi pilotalekuan.

pena dela eta, estalkiak sortu ditu "konplikaziorik handienak", udaletik jakinarazi dutenez.

Frontisa eta alboko pareta ere konpondu dituzte, eta joko eremua berriro asfaltatu dute, pilota eta zesta federazioak eskatzen dituen oinarritzko baldintzak betetzeko.

Gainera, kontrakantxako sarea eta zorua berriztu dituzte. Energia eraginkortasuna argiztapena ordezkatzeko eta indartuz hobetu dute.

## Winter Series txapelketa

Frontoi eraberrituak otsail amaieran hartuko du lehenengo txapelketa profesionala. Izan ere, ETBk iazko urte amaieran iragarri zuenez, Emakumeen Winter Series zesta-punta txapelketako partidu batzuk Durangon jokatu dira: finalaurreko bi eta finala. Txapelketa otsailaren 27an hasiko da eta hiru aste iraungo du.

Izan ere, ETBk iazko urte amaieran iragarri zuenez, Emakumeen Winter Series zesta-punta txapelketako partidu batzuk Durangon jokatu dira: finalaurreko bi eta finala. Txapelketa otsailaren 27an hasiko da eta hiru aste iraungo du.

## Alpino Tabirak ireteera antolatu du Garai eta Iurretatik

### MENDIA • J.D.

Iaz Ermitak bide Durangaldea bizi ibilbide liburuagaz zabalduko bideari jarraituz, Alpino Tabira mendi klubak filosofia bera mantentzen duten Durangaldeko ibilbide berriak proposatzen jarraituko du aurtengo ere. Ekin-tzok Alpino Tabiraren urteko egutegian txertatuta daude eta lehenengo irteera urtarrilaren 21eko zapatuan izango da.

Ibilbide zirkular bat izango da, Iurretako Aita San Migel plazan hasi eta amaituko dena. Ia 15 kilometrotan zehar —645 metroko desnibel metatua—, Garaiko ermita biak eta Iurretako lau ezagutu ahal izango dira. Ertzilleko garaia eta Gallandako tontorra ere ibilbidean sartuta egongo dira.

Ibilbidean zehar, igarotzen dituzten ondarearen inguruko aipamen txikiak egingo dituzte. Irteera 8:30ean izango da, Iurretako Aita San Migel plazatik. Doakoa izan arren, izena aurretik ematea komenigarria dela azaldu dute mendi klubetik. Izen-ematea [katazka@alpino-tabira.org](mailto:katazka@alpino-tabira.org) helbide elektronikoan edo Alpinoren Goienkaleko egoitzan egin daiteke.

## Jokaldia

### Aldaketak

2023. urtea hasi berri da eta berri bat kontatzera nator. Hemendik aurrera "Barcelona Futbol klub"-eko atletismoko sektoreko atleta izango naiz; beraz, etapa berri bat hasteko ilusioz ekin diot urteari. Atletismoa kirol indibiduala izan arren, beti esan ohi dut ondoan ditugun ezinbestekoak direla gure bidean aurrera egin ahal izateko, eta horien artean, besteak beste, kluba eta hura sortzen duten pertsonak ere badaude. Hainbat urtean Durangaldea Running taldean egon nintzen eta bertan hasi nituen nire kirol arloko pauso garrantzitsuenak. Bertan, etxeko klub bat izanik tratua beti ezin hobea izan da. Baina, kirolari bezala maila bat izaten hasi nintzenean, nire herriko taldea



June Arbo Sarriugarte  
Korrikalaria

### Berri bat kontatzera nator. Hemendik aurrera 'Barcelona Futbol klub'-eko atletismo sektoreko atleta izango naiz

### Kirolari bezala progresio bat izaten jarraitu ahal izateko, Bartzelonan emandako aukera aprobetxatu nahi dut

uzteko penaz, Zaragozako Scorpio klubera pasatu nintzen, Espainiako "ohorezko mailako" klubaren arteko ligan parte hartu ahal izateko. Azken honetan ere etxean bezala sentitzeko

ahalegina egin dute beti, eta atletak ondo egon gaitezene zaindu dute beti. Denboraldi berri honetarako, nire maila igotzen jarraitzeko eta kirolari bezala progresio bat izaten jarraitu ahal izateko, Bartzelonako klubak emandako aukera aprobetxatu nahi dut. Nire egunerokotasunean aldaketarik egongo ez den arren, eta nire entrenatzaile eta taldearekin entrenatzen jarraituko dudana arren, klub honetarako lehiatuko naiz. Ilusioz hasten dut etapa berri hau, hobetzen jarraitzeko erronka eta aukera berri bat bezala ikusten dut; beraz, horretarako animatzen eta motibatzen nau aldaketa honek. Nire onena emateko prest, asteburu honetan Jaenen parte hartuko dudana 10 kilometroko lasterketan estreinatuko ditut kolore berriak.

**ETXETXO**  
**G. INMOBILIARIA**  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

**AMBOTO**  
**INMOBILIARIA**  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)

**DURANGO**  
Etxebizitza 2 bateratuta. 115 m<sup>2</sup>. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. Trastelekua.  
**185.000 €**

**DURANGO**  
Apartamentua. Erdi berria. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan.  
**142.500 € C.E.E= F**

**KOMENTUKALE**  
4 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea.  
**239.500 € C.E.E.= E**

**IURRETA**  
3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 15 m<sup>2</sup>-ko trastelekua. Aparkaleku pribatua. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan.  
**130.000 € C.E.E.= F**

**DURANGO**  
ALOKAIRUAN erosteko aukerarekin. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. IGOGAILUA.  
**C.E.E= F140.000 € - 600 €/hileko.**

**MARTXOAREN 8KO**  
ERDI BERRIA. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia.  
**318.000 € C.E.E= E**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

**DURANGO:** Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.

**DURANGO:** Antso Eztegi. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobea.

## ABADIÑO

**ABADIÑO:** Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

## BERRIZ

**BERRIZ:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**IURRETA:** Orozketa auzoa. Baserrri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

**BERRIZ:** Andikona auzoa. Baserrri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baserrri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

**ATXONDO:** AXPE. Baserrri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

**ATXONDO:** ARRAZOLA. Izugarritzko baserrri salgai. 40.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Berrizatzeko.

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserrria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

## //BULEGOAK ALOKAIKUAN

### ABADIÑO

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

### //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

### //LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## www.inmoduranguesado.com

**DURANGO** 60 m<sup>2</sup>  
2 logela  
**ANTSO ESTEGIZ:** Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia (itxia) ipar/ hegoaldea. Leku onean kokatua (Zinalde berdeak eta zerbitzuneak) Alde zaharrean ondoan. Egoera onean. 5 m<sup>2</sup>-ko trastelekua.  
**169.000 € C.E.E: F**

**DURANGO** 104,54 m<sup>2</sup>  
4 logela  
**LARIZ DORREA:** Egongela, sukaldea, jangela 4 logela, despentsa eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea). Leku onean kokatua (Santa Ana) Hobekuntzak behar ditu. BI APARTAMENTU BIHURTZEKO AUKERA.  
**175.500 € C.E.E: E**

**ABADIÑO** 66,54 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**ASTOLA AUZOA:** Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde/mendebaldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeez inguratuta. Argitsua. ITE 2019. urtean pasatakoa.  
**139.000 € C.E.E:F**

**DURANGO** 86 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**ASKATASUN ETORBIDEA:** 2.012 urtean eraikia. Halla, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuneak. 22,4 m<sup>2</sup>-ko garajea eta 8 m<sup>2</sup>-ko ganbara. Bizitzen sartzeko moduan.  
**325.000 € C.E.E: Bidean**

**MATIENA** 89 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**TRAÑABARREN:** Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta 38m<sup>2</sup>-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-mendebaldea): Argitsua. Leku onean kokatua. 12 m<sup>2</sup>-ko trastelekua. Egoera onean dago baina berrikuntzak behar ditu.  
**229.000 € C.E.E: F**

**MUNTSARATS** 70,4 m<sup>2</sup>  
2 logela  
**ARLOZABAL:** 2004.urtean eraikia. Galeria, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. (Zonalde berdeak.) 7.50 m<sup>2</sup>-ko trastelekua eta 14,29 m<sup>2</sup>-ko garajea. EZIN HOBEA.  
**189.000 € C.E.E: E**

## //DURANGO

**ANTSO ESTEGIZ:** 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€/ E.E.Z= F**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

**BARRENKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **145.000 € / E.E.Z=G**

**JOSEMIEL BARANDIARAN:** Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**JUAN DE OLAZARAN:** 3 egongela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000€ / E.E.Z=B**

**KOMENTU KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara. Garaje itxia aukeran. **LEHEN 230.000 € ORAIN 190.000 € / E.E.Z=E**

**MONTEBIDEO KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **275.000€ / E.E.Z=F**

**SAN FRANZISKO:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

**TRENBIDE KALEA:** 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**

## //ABADIÑO

**MUNTSARATZ AUZOA:** Baserrria. 2.750 m<sup>2</sup>-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

## //BERRIZ

**BERRIZBEITIA:** 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **100.000 € / E.E.Z=G**

**MURGOITIO AUZOA:** Berreraikitzeke baserrria lurzoruagaz. **290.000 €**

**PADURE:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

## //GARAI

**MOMOTIO AUZOA:** Etxebizitza eraikitzeke lursailak. Aukera ezberdinak.

## //IURRETA

**DANTZARI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

## //IZURTZA

**ELIZALDE AUZOA:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

## //OTXANDIO

### OTXANDIO

**ZELAIETA AUZOA:** Baserrria. 40.355 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **348.000€ / E.E.Z=BIDEAN.**

## //GARAJEAK SALGAI

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

## //BERRIAK

### DURANGO

**HARITZ KALEA:** 5 logela, sukaldea, egongela eta 5 komun. Txokoa. garajea. Balkoia eta terrazadun etxe atxikia. **640.000 € / E.E.Z=E**



## Botikak

<b>BARIKUA, 13</b> · 09:00-09:00
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
<b>ZAPATUA, 14</b> · 09:00-09:00
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
09:00-13:30
ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2 - DURANGO
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO
DE DIEGO, INTXAURRONGO 22 - DURANGO
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO
SANTAMARIA, ERREKAKALE 6 - ELORRIO
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
09:00-14:00
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
<b>DOMEKA, 15</b> · 09:00-09:00
ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
<b>ASTELEHENA, 16</b> · 09:00-09:00
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
<b>MARTITZENA, 17</b> · 09:00-09:00
DE DIEGO, INTXAURRONGO 22 - DURANGO
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
<b>EGUAZTENA, 18</b> · 09:00-09:00
SAGASTIZABAL, ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
<b>EGUENA, 19</b> · 09:00-09:00
MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

**GOZATU GOZOTEGIA**

Zorionak, **Angie (918. alea)**!  
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozategia  
gozaturgozategia



Zorionak, maitiak, beste urte berri bat ospakizunez betea. **Intza, Irati** eta **Igor**, jarraitu beti bezain alai ta gu zoriontsu eiten. Musu potolo bat Inhar eta amatxon partez.



Zorionak, **Xuban** eta **Katrin**. Xuban, dagoeneko sei urte egin dozuz. Jarraitu hain jator. Katrin, hamar urte potolo egin dozuz txiribuelbaka. Mosu eta besarkada estu bana. Maite zaituegu etxeko guztiok.



Zorionak, amatxo!



Urtarrilaren 4an **Mila Laucirican** urtegune izen zan. Zorionak, amama! Besarkada bat etxeko danon partez!

## Eguraldia


ZAPATUA ↓ 6° / 16° ☁	ASTELEHENA ↓ 4° / 11° ☁	EGUAZTENA ↓ 3° / 7° ☁
DOMEKA ↓ 4° / 11° ☁	MARTITZENA ↓ 4° / 10° ☁	EGUENA ↓ 3° / 7° ☁

## Eskelak



### Egoitz Uberuaga Aranburu

1986-01-13 | 2019-01-13



*Lau urte pasa dira,  
baina gure bihotzean irribarrez bizi zara.  
Asko maite zaitugu.*

Etxekoak.  
Mallabian, 2023ko urtarrilaren 13an

## ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

[anboto.org/eskelak](http://anboto.org/eskelak)

Anbotokideek deskontua izango dute.



# "Etapa bat bete dugu. Bizitza bakarra da eta beste gauza pila bat egiteko gogoia dugu"

Jon eta Ibon Petralanda anaiek Txoria Nuen Maite taberna ezaguna 1999ko azokarako zabaldu zuten Durango. 23 urte geroago etapa hau amaitutzat ematea erabaki dute. Gabonetan zarratu dute taberna, jai bat eginda



**Jon Petralanda**  
Eskauriatza

Tabernaria

DURANGO | 1967

**Ibon Petralanda**  
Eskauriatza

Tabernaria

DURANGO | 1969

**DURANGO** • E.H./J.G.

Txoria Nuen Maite taberna erreferente bat izan da Durangoko ostalaritzan. 1999ko abenduan zabaldu zuten Jon eta Ibon Petralanda anaiek. Familiaren etxean martxan ipini zuten taberna. 2022. urtea amaitzeagaz batera, tabernaren ibilbideari ere amaiera eman diote. Ziklo bat zarratu eta beste bat zabalteko ordua heldu dela erabaki dute anaia durangarrek.

Jende askok egingo zizuen galdera hau: zergatik itxi?

**Jon:** 23 urte asko dira. Bizitza erdia hemen eman dugu eta etapa bat bete dugula uste dugu. Bizitza bakarra da eta beste gauza pila bat egiteko gogoia dugu. **Ibon:** Geroago eta gatxagoa da honelako garito edo negozioak aurrera ateratzea. Ostalaritza eta autonomoak geroago eta txarrago daude.

**Hainbeste denboraren ostean, kostatu egin zaizue erabakia hartzea?**

**Jon:** Bai, gainera guk lotura familiarra dugu etxe honegatz. Gure gurasoak ezkondu zirenean etxe hau eraiki zuten eta hemen bizi ginen. Beraz, taberna eta gure familiaren etxea izan da.

**Geroago eta gatxagoa da honelako negozioak aurrera ateratzea. Ostalaritza eta autonomoak geroago eta txarrago daude**

**Ibon:** Bizitza honetan aldaketak behar dira, beti gauza berdina egiten ibili beharrean.

**Txoria Nuen Maitek beti izan du xarma berezi bat. Taberna honek zein ekarpen egin dio Durangoko ostalaritzari?**

**Jon:** Hori jendeak esan beharko luke. Hasieratik hainbat gauza izan genuen argi. Tabernan sekula ere ez dugu telebistarik izan. Ez dugu txanpon-makinarik izan. Inoiz ere ez dugu erosi El Correo Español. Askatasunean egoteko taberna bat izan da. Beste pertsoneri kalte egiten ez diezun bitartean hau taberna libre bat izan da. Eta kalitatea ere zaindu dugu. Alternatiba bat izaten ahalegindu gara. Zabaldu genuenean arraroa zen taberna batean sartu eta arratsalde osoa eserita egotea. Poteoa boladan zegoen. Dantzarena sartu genuen, afari tematikoak, Dj-ak, koktel-gintza...

**Ibon:** Adin nahaste handia izan da beti.

**Zer gertatuko da tabernagaz?**

**Jon:** Hilabete inguru itxita egongo da eta beste batzuek jarraituko dute.

**Mila esker 23 urte hauetan tabernatik pasatu diren bezeroei, lagunei, langileei, hornitzaileei...**

**Eta zuek?**

**Ibon:** Bizi apurtxo bat.

**Jon:** Asteburuak libre, kontzertu batera joan...

**Zelan joan zen itxiera jaia?**

Itzela izan zen, jende pila etorri zen. Izotza eta edariak amaitu zitzaizkigun.

**Beste ezer gehiagorik esan gura duzue?**

**Jon:** Mila esker 23 urte hauetan tabernatik pasatu diren bezeroei, lagunei, langileei, hornitzaileei... Negarrez hasiko naiz!

**Lauhortza**

Bixente Aizpurua  
Eguren  
Irakaslea/ Jubilatu



**Tia Mari**

Benito Lertxundiren "Zenbat gera" abestia entzuten ari naizela aitortu behar dut bat gutxiago dagoela gure artean eta hori zu zara, tia Mari. Urte bukaeran utzi gaituzu, baina zure itzala beti izango dugu gure artean.

Jenioz biziko emakumea, baina bihotz handi eta beroduna, gora begira egon gabe zirt edo zart heldu beharrekoari heltzen ziona.

Zu izan zara gure erizaina eta praktikantea, trebea indizioak jartzen edo sendaketak egiten. Medikuaengana joan behar bagina tia Mariren Zitroen gorria atarian zain. Gaixorik bageunden tia Mari gure ohe ondoan laguntzeko prest.

Zenbat buelta eman duzun nirekin mediku honek edo beste horrek ni aztertzeke. Amama eta gurasoekin batera zu izan zara nire sostengurik garrantzitsuena bizitza honetan izan ditudan oztopo guztiak gainditzeke.

Zure baserri ingurutik pasatzean sarritan irudikatzen zaitut aitzurran edo astotxo mekanikoarekin lurra lantzen gero zapatuetan benedeja hartu eta Durangoko plazan zure bezeroei maitasun handiarekin zainduta barazkiak saltzeko.

Lanean gogor ibili arren beti ateratzen zenuen denbora, dotorre jarri, eta hara eta hona joateko. Dantzari ona, lagunena laguna eta irribarretsu garbiarekin beti laguntzeko prest zegoena.

Azken urteetan gortina ilun batek apurka-apurka zure memoria ilundu eta ezabatu dizu, baina zuk oroitzapen, irudi edo aurpegiak ahaztu arren gudan utzi dituzun bizitza-irakaspenak beti izango ditugu gurekin.

Zauden tokian zaudela, mesedez, jarrai ezazu gu zaintzen.

Eskerrik asko eta goian bego gure tia Mari, NIRE tia Mari.

## Durangaldean ostalaritzarekin, zerikusia duen negozioirik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian